

AUTOKARABANENTZAKO GUNEARI BULTZADA EMATEA

ESKATZEN DU EHBILDUK

Gaur egun bidaiatzeko dauden era ezberdinen artean sona hartzen ari den aukeratako bat da autokarabanarena. Hori honela izanik, Arrasateko Udalak legegintzaldi honen hasieratik hona Autokarabanentzako Gunea sortzeko asmoz kontsulta teknikoak egin ditu Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomiaren Sustapenerako batzordeak bultzaturik udal sail batzuen artean eta baita batzarrak ere herriko autokarabana erabiltzaile ezberdinen ideiak jasotzeko. Kronologiari dagokionez gaia hasten da 2015eko abenduan udaleko Hirigintza sailarekin azterketa egin zenean aukera posible egiten zuten guneak aztertzeko eta Hirigintzak hainbat kokapen iradoki zituen ezaugarri ezberdinekin.

Hirigintza sailak 2016ko maiatzaren 10eko bigarren kontsulta batean Markuleteko orubea proposatu zuen egokien, Olandixoko tunelaren irteeran ezkerretara den 3.900m²ko partzela hain juxtu, aztertutako aukeren artean udal jabetzako lursaila zelako Markuletekoa eta aukera ematen zuena aisialdi gunea egiteko. Merkataritza, Turismo, Teknologia Berriak eta Ekonomiaren Sustapeneko batzordeak 2016ko ekainaren 20an proposatu zien bai Hirigintzari bai Obra, Zerbitzu eta Mantenu sailari proiektua egiteko Markuleteko partzelan.

Bertan aurreikusten zen 10-12 plazako gunea egitea, 900m²ko hesidurarekin eta ur garbia eta ur zikinak botatzeko gune bereziekin. Lurrean loseta zulodunak jartzea proposatzen zen, Arruena parkean bezala, komun publikoa, argiztapen egokia eta picnic gune bat mahai zein jarlekuekin. Amaitzeko, iturria eta abentura jolas parkea ere egongo liriteke.

Gaia Obra, Zerbitzu eta Mantenu batzordera bideratu zen azkenik 2016an, baina ez da aurrerapausorik eman ia urtebetean ez zaiolako lehentasunik eman. Arrasateko EH BILDUK eskatzen dio gobernuari aintzat hartzeko egitasmoa eta emateko bide Merkataritza, Turismo, Teknologia Berri eta Ekonomiaren sustapeneko batzordearen proposamenari, ekipamendu interesgarria delako Autokarabanentzako Gunea gure herriarentzat.